

EUSKAL HERRIAREN ETA NAFARROAKO ESTATUAREN LURRALDEA ETA ABERRIA

Etxabarri (2006.6.28)

Herriak, gehienetan, lurralde bati atxikiak daude. Gainera, estatuak sortzen hasi zirenetik, Lurraldea estatuaren elementu garrantzitsu batean bilakatu da. Holakoetan, lurraldearen lehentasuna azalpen arbitrario baten ondorio, eta, inolaz ere, adiera bakarrekoa izan dela erraz egiazta daiteke. Herri bakoitzak dituen premiei erantzunez, eta euren helburuak lortzearren, eta, azken finean, gai den neurrian bere estatua eraikiko du. Bide batez, estatu bakoitzak inguruan dituen herri eta estatuei aurre eginez defendatzen duen lurraldea berea egingo du. Estatuak, hain zuzen, eurentzat bakarrik izango den espazioa markatu eta zehaztuko du. Izan ere, Lurraldearen hedadura herri indarraren baitan suertatuko da, eta Lurraldearen erabakia, hau da, zein eta zenbateko hedadura izan behar duen, soilik, herriari dagokio. Justu, IX. mendean, gure herria horrelako egoera batean zegoela; hau da, besteak beste, frankoen inperialismori aurre egin beharrean aurkitu zenean, estatua eratzea eta eraikitzea erabaki zuen.

Gure estatuaren eraketa eta eraiketan eman zen prozesua luzea eta neurtua izan zen. Aurrena Irunako erreinua osatu zen. Hala ere, handitzen joan zen erreinuaren barnean, desadostasunak edota ados ez etortzeak ez ziren faltatu. Zeren garapenaren lehen epealdian, erreinuaren hazkundean hain zuzen, hasierako erreinu guneak bere estatu ereduarekin eragiten baitzuen. Eta egia da, estatuaren ideia indar handiagoz sustraitu zela hasierako erreinu gunean, ondoren garapenaren bidez osatuz eta gehitzen joan ziren erreinuko beste lurraldeak baino. Nafarroako erreinuaren osaketa X. menderako burututa zegoen, eta Irunako erreinua zena estatuko gune politikoa bihurtuko da. Nolanahi ere, Nafarroako erreinua behetik gorantz eraiki zen, hau da, erreinuaren osaketara biltzen ziren lurralde berriek bere borondatez egin zuten, hain zuzen, Inperialismoari aurre egin beharrak eta eskualde ezberdinek proiektu politiko amankomuna izateak, politikoki Nafarroako erreinu baten barnean, elkar hartu zuten.

Estatuek bere historiaren barne atzera buelta ere izan dezakete. Estatuak, zenbaitetan, egoerak hala eskatuta, murriztutako lurralde batera atzera eginez, eta ahal den heinean gotortuz, estatu inperialistei aurre egin behar izaten diete. Ez da arraroa, estatuak bere sorreran eratu zuten lurralde gunea, eta denborarekin inperialisten eraginez atzera egin behar izatean, gelditzen zaien murriztutako lurraldea bera izatea. Atzera egite hori geldituriko indarrak biltzeko, eta horrela egoera berri horri erantzun ahal izateko baliagarria gerta daiteke. Beste zenbait kasutan, berriz, estatuak suntsiturik gelditzen dira. Izan ere, estatu baten heriotza behin eta berriz gertatzen den gertakaria da. Hala ere, estatuaren ezaugarri berezietariko bat, eta behin baino gehiagoetan agerian jarri dena, desagertutako estatu baten ondoren berriro berpizteko duten kapazitatea da. Hain zuzen, izaki bizidunekin

gertatzen ez den bezala, estatuak bizitzeko nahia azaltzen dute. Hori dela eta, estatuak nahiz eta desagertu espazioan eta denboran bizirik diraute.

Estatuak berpizteko duten ezaugarri hori, besterik gabe, ez da nahikoa. Estatua konkistatua denean, hain zuzen, herria eta lurraldearen arteko sintaxia ahultzera, hau da, estatuaren ideia gutxitzera joko du. Beraz, estatuaren ideia berreskuratu behar dugu. Bide horretan, maiz, gobernu probisionalek edota antzeko erakundeek betebeharrak edo betekizun handiak dute. Herri bezala berrindartzeko estatuaren ideia funtsezkoa da, eta horrek berekin muga historikoak berpiztea dakar. Horrekin ez da esan nahi, estatuak bere sorreran izan zuen prozesu bera, hau da, hasierako lurralde gunetik estatuaren konfigurazio osora artekoa eman behar duenik.

Gure herriak hasieran Irunakoa eta ondoren Nafarroako erreinua eratu zuen. Eneko Haritza, 824an, lehen erregea izango da. Erreinua Antso I Gartzek-ekin erabat osatua gelditzen da (905-25), eta Antso III Nagusiak (1004-35) euskal lurraldetasuna mugatuko du. Lurraldea euskalduna, oinordetzat, Gartzia V Naxera-koak jasoko du. Nafarroako erreinuaren galera, ordea, Atapuerkako guduaren ondoren hasten da. Gaztelako erreinuak gure erreinuaren mendebaldeko lurrak, 1200. urtean, konkistatu zituen; Nafarroa Garaia, berriz, 1512. urtean eta 1620. urtean iparraldeko azken lurrak. Gerrate karlistak herriak foruetan gauzatutako indarra eusteko saioak baino ez ziren izan. Estrategia politiko egoki bat ez izateak porrotara eraman zuen. Hala ere, gerrate karlistak borroka marko geografikoa zein den garbi erakusten digute. Sabino Aranek ere, bere garaiko nazionalismoa formulatzean, aberriaren lurralde bera azpimarratuko du. Espainiako 36-39ko gerran gudariak, buruan, Sabinoren aberria dabilkie. Dirudenez, herria bere buruaren jabe izateko berpizten denean, estatuaren ideiak berehalako oinarrizko indarra hartzen duela. Eta, ez da ahaztu behar, estatuak muga historikoen aipua dakarrela berekin.

Herrien sustraiak bilatu nahi direnean, antzina urrutiko denboretara jo behar da nahitaez. Hizkuntza da horren adierazpen bat; kulturak ere, antzina garaiaz, ezagutza ezberdinak ematen dizkigu; erlijio komunitatea tradizioetan aberatsa, errebelazioak... Guzti horretatik, herrian oroitzapen eta eskarmentu amankomun biziak suertatzen dira, eta herri garapen hori espazio batean eman denez, hortik lurralde historiko amankomunaren ideia sortzen da. Herriek, esandakoarekin jarraituz, estatuak baino iraupen luzeagoa dute, eta lurralde historikoaren ideia, bereziki, herrian jasota geldituko da; estatuarena, berriz, liburuetan. Lurraldearen tradizioak aberriarekin bat egiten du. Herriaren aberriak eta estatuarenak bat egingo dute.

Aberria edo Ama Lurra Estatua berreraikitzeke nahitaezko elementua dugu, alegia.